HELBURU ESTRATEGIKOA	TRAKZIO-PROIEKTUAK/JARDUKETA OSAGARRIAK	ERAKUNDEETAKO ARDURADUNAK
<p>Bazterketa-sarea indartzea eta haren deszentralizazioan aurrera egitea, bai eta lehen eta bigarren mailako arretaren artikulazioan eta jarraitutasunean, arretaren malgutasunean eta pertsonalizazioan, eta prebentziozko ikuspegiaren ere, beste sistema batzuekin lankidetzan aurrera eginda inklusioaren mesedetan.</p>	<p>Bazterketa-sarearen deskontzentrazioan aurrera egitea GZESren barruan (lurraldean hedatzea) eta lehen eta bigarren mailako arretaren artikulazioa hobetzea, artikulazio-formula berriak aztertuz eta ezarriz.</p>	<p>Eusko Jaurlaritzako Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritza, foru-aldundiak eta Udala.</p>
	<p>Nahi ez diren bakardadeen aurrean Euskal Estrategia diseinatzea eta bultzatzea, arreta (ez eskusiboa) adinekoengan eta isolamendu sozialean jarrita, hiriaren zein landa ingurunearen testuinguruan.</p>	<p>Eusko Jaurlaritzako Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritza, Aniztasunaren, Bizikidetzaren eta Belaunaldien arteko Elkartasunaren Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza, foru-aldundiak eta udalak.</p>
	<p>Etxerik gabeko pertsonentzako II. euskal estrategia (EGPEE) diseinatzea eta abian jartzea</p>	<p>Eusko Jaurlaritzako Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritza, foru-aldundiak eta Udala.</p>
	<p>Espazio soziohabitazionala eta soziojudiziala definitzea, garatzea eta ebaluatzea.</p>	<p>Eusko Jaurlaritzaren Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila, Eusko Jaurlaritzaren Justizia eta Giza Eskubideen Saila, Foru Aldundiak</p>
	<p>Haur eta nerabeen legea onartzea eta hedatzen hastea.</p>	<p>Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Gazteria eta Erronka Demografiko Sailburuordetza</p>
	<p>Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE 2023-2030) diseinatzea, abian jartzea eta ebaluatzea</p>	<p>Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Gazteria eta Erronka Demografiko Sailburuordetza</p>
	<p>Krisiaren ondoriozko gizarte-larrialdiko egoera edo koiunturarako erantzunak diseinatu, aktibatu eta sistematizatzea</p>	<p>Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Ongizate Sailburuordetza</p>
	<p>Euskal harreraren eredua hedatzea, kulturarteko ikuspegiarekin, abian jarritako ekimenen sistematizaziotik eta ebaluziotik abiatuta</p>	<p>Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografiko Saileko Gazteria eta Erronka Demografiko Sailburuordetza</p>

Proiektuen eta jarduketaren gauzatze maila

Ekimenen betetze-maila aurreratua da, eta proiektu/jarduera osagarri gehienak partzialki osatuta daude.

EAEko krisien ondoriozko gizarte-larrialdiko egoerei edo koiunturari erantzuteko jarduketak osagarria eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Etxerik Gabeko Pertsonen Euskal Estrategia osatu dira.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Bazterketa-sarearen kontzentrazioa eta artikulazioa	Diseinuan	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua

Euskal Estrategia nahi ez diren bakardadeen eta isolamendu sozialaren aurrean	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua
Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (EGPEE)	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Eginda
Soziohabitazionala	Partzialki gauzatua	Diseinuan	Partzialki gauzatua	Hasi gabe
Haur eta Nerabeen Legea	Partzialki gauzatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE) Aukerak Suspertzen barne	Partzialki gauzatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Krisiek eragindako gizarte-larrialdiko egoerei edo koiunturei emandako erantzunak	Eginda	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Euskal harrera ereduaren hedapena + Trapezistak	Partzialki gauzatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Egindako ekintza zehatzak

Ardatz honetako proiektu eta jardueren esparruan, erakunde arduradunek hainbat ekintza jarri dituzte abian. Jarraian, **adibide azpimarragarriak** biltzen dira:

Eusko Jaurlaritzza

- Lurralde-mapak egitea, bizitegi-bazterketa larriari buruzko VII. azterlana eta aurkezpen-jardunaldia.
- Bizitegi-bazterketa larriaren aurkako euskal estrategia eta haren jarraipen-batzordea garatzea.
- Kaleko arretarako ERDU programa mantentzea.
- Nahi ez den bakardadearen aurkako Europako proiektuak bultzatzea (KORALE eta TRANSIS LAB).
- Haur eta Nerabeen 2/2024 Legea onartzea eta hedatzea.
- Barnahus zerbitzuaren aurrerapenak.
- 2030erako Haur Bermearen Euskal Estrategia onartzea.
- Aukerak Suspertzen, CODI eta “Eginez ikasi” programak indartzea.
- Gizarte-larrialdietarako laguntzak, gizarte-bonu termikoa eta elikadura-laguntza kudeatzea.
- Oinarrizko Programa (EGIF) kudeatzea.
- DANaren aurrean lurralde-laguntza eta informazioaren zabalkundea.
- Kulturarteko VI. Plana gauzatzea: Aholku Sarea indartzea, TRAPEZISTAK, autonomia fasearen transferentzia, Harreragunea eta harrerarako udal protokoloa (Harrera Ehundu).

Arabako Foru Aldundia

- Bazterketaren lurralde-maparekin lerrokatutako jarduketa-sarea garatzea.
- Housing First zerbitzua, laguntza psikosozialarekin eta generoaren arabera bereizitako bi etxebizitzarekin.
- 15 lagunentzako laguntza komunitarioko programa.
- Gasteizekin lehen eta bigarren mailako koordinazioa hobetu, eta protokolo bateratua ere bai.
- Genero ikuspegia indartzea eta indarkeria matxistaren protokoloa.
- “Araba puntu-puntu” estrategia, aukerakoa ez den bakardadea detektatzeko eta prebenitzeko, bakardade-eskolak eta nerabezaroko prebentziorako gida barne.
- Etxerik gabeko pertsonentzako jarduerak eta lehen eta bigarren mailako artikulazioa.
- Arabako Lurralde Historikoko kuadrilletako Gizarteratze Mahaiak.
- Emakumeen laborategia inklusio-ibilbideetan.

Bizkaiko Foru Aldundia

- Plazak handitzea eta eguneko zerbitzuak hedatzea.
- Etxebizitzak erostea eta lehen mailako arretarekin koordinatzea.
- Diagnostiko espezializatuen automatizazioa.
- Bizkaisare 2030 estrategia, bakardadea prebenitzeko eta proiektu pilotuak abian jartzeko.
- 34/2025 Foru Dekretua, ekintza komunitariorako dirulaguntzei buruzkoa.

Gipuzkoako Foru Aldundia

- Lezon udalaz gaindiko eguneko zentroa eraikitzea.
- Kasu konplexuak eta lurralde-koordinazioko mahaiak koordinatzea.
- Zarautz Oinarrian programa.
- Hariak estrategia, nahi ez den bakardadea saihesteko.
- Egoitza-bazterketarako harrera eta arreta integratuko zentro bat sortzea.

Toki- eta udal-eremua (ekarpenen lagin txiki batean oinarrituta).

- Gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen arreta emateko programak (Zare Gune, Leioan)
- Familia sarerik gabeko pertsonentzako laguntza- eta ostatatze-programak (Getxo).
- Etxerik Gabeko Pertsonen Arretarako Udal Plana (Bilbo).
- Eskolak, tokiko estrategiak eta bakardadearen aurkako tokiko programak.
- Migratzaileentzako elkarguneak: Topagune, Abeginea.
- Gizarteratzeko sistemen arteko koordinaziorako tokiko mahaiak.
- Kirol bidezko inklusio-proiektuak (Kirolarekin Zubia eraikiz).
- KULUNKA etxebizitza babestuen proiektua: gizarte- eta hezkuntza-laguntza duten 14 etxebizitza (Bilbo).

Faktore bideratzaileak eta oztopoak

Ardatz honetako jardueren eta proiektuaren esparruan, erakunde arduradunek faktore bideratzaile eta oztopo hauek identifikatu dituzte: Jarraian, ohikoenak biltzen dira.

Identifikatutako faktore bideratzaileak honako hauetan oinarritzen dira: erakundeen arteko eta Hirugarren Sektorearekiko koordinazioa; diagnostikorako eta plangintza egokirako tresna komun erabilera; lidergo instituzionala eta arau-esparru eta esparru estrategiko mesedegarriak egotea; gizarte-eragileen, tokiko erakundeen eta erabiltzaileen inplikazio aktiboa; arreta komunitarioko eta sare-laneko ereduak indartzea; eta baliabideak optimizatzeko, esku-hartzeen diseinua hobetzeko eta inplementazio koherente eta eraginkorra ziurtatzeko aukera ematen duten komunikazio-, partaidetza- eta lankidetzaren espazio egonkorrak egotea.

Oztopo nagusien artean daude aurrekontu-mugak, eskumenen zatiketa, profil konplexuei erantzuteko mugak eta zailtasunak dituen lehen mailako arreta. Udal-mailan, eragina dute koordinazioak, zerbitzuen saturazioak eta gela-baliabideen faltak. Era berean, gizarte-harrera mugatuko arazoak identifikatzen dira bakardade-programetan, nolabaiteko arau-komplexutasuna, adingabe kalteberen datuak eskuratzeko zailtasunak, premia egoerak sortzen dituzten nazioarteko kontingentziak eta udal-erantzunen aniztasuna.

Ardatz honetako proiektu/jarduera batzuetan, desberdintasunak hauteman dira erakundeek egindako balorazioetan, eta, oro har, erakundeek egindako garapen zehatzek baldintzatutako datuak dira.

Oro har, aurrerapausoak ikusten dira gizarte zerbitzuen sistema koordinatuago, inklusiboago eta pertsona kalteberengan zentratuago baterantz. Foru, toki eta autonomia mailako ekintzen konbinazioak, Hirugarren Sektore Sozialaren eta gizarte zibilaren parte-hartze aktiboarekin batera, gizarteratzea, gizarteratze komunitarioa eta arreta pertsonalizatua indartzea ahalbidetu du. Estalduran, programen neurritatzean eta lurralde-homogeneizazioan hobetu beharreko arloak identifikatzen diren arren, emaitza orokorrak aldekoak dira, eta integrazioari begira finkatu beharreko ildoak erakusten dituzte.

Proiektuen eta jardueren emaitzen balorazioa

Oro har, joera positiboa ikusten da, kasu askotan proiektuen eta jardueren emaitza nahiko egokitzat jotzen baita. Kasu batzuetan, espero zena modu eraginkorrean bete dela baloratzen da, eta beste batzuetan, berriz, hobetzeko nolabaiteko tartea identifikatzen da.

Positiboki nabarmentzen da euskal harrera ereduaren hedapena, oso ondo baloratzen baita.

Aldiz, Haur Bermearen Estrategiak, espazio Soziohabitazionalak eta bazterketa-sarearen deskontzentrazioak muga handiagoak dituzte.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Bazterketa-sarearen kontzentrazioa eta artikulazioa	Onargarriak	Onak	Onargarriak	Onargarriak
Euskal Estrategia nahi ez diren bakardadeen eta isolamendu sozialaren aurrean	Onargarriak	Onargarriak	-	Onak
Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (EGPEE)	Onargarriak	Onak	Onak	Onak
Soziohabitazionala	Onargarriak (Justizia eta Giza Eskubideen Saila) Onak(Etxebizitza eta Hiri Agenda Saila)	Txarrak	Onak	Hasi gabe
Haur eta Nerabeen Legea	Onak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE) Aukerak Suspertzen barne	Onargarriak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Krisiek eragindako gizarte-larrialdiko egoerei edo koiunturei emandako erantzunak	Onak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Euskal harrera ereduaren hedapena + Trapezistak	Oso onak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Proiektuek eta jarduketek helburu estrategikoari egiten dioten ekarpen-maila

Ardatz honetako ekimenek helburu estrategikoari egiten dioten ekarpen neurritsua edo esanguratsua da nagusi, era askotako balorazioak egon arren. Horrek esan nahi du, oro har, aurrerapen argiak sumatu direla alderdi batzuetan, eta erakunde batzuetan uste dute bultzatutako aldaketak funtsezkoak izan direla.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Bazterketa-sarearen kontzentrazioa eta artikulazioa	Moderatua	Moderatua	Moderatua	Moderatua
Euskal Estrategia nahi ez diren bakardadeen eta isolamendu sozialaren aurrean	Moderatua	Adierazgarria	-	Gakoa
Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (EGPEE)	Moderatua	Adierazgarria	Moderatua	Adierazgarria
Soziohabitazionala	Moderatua	Mugatua	Adierazgarria	Hasi gabe
Haur eta Nerabeen Legea	Mugatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE) Aukerak Suspertzen barne	Moderatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Krisiek eragindako gizarte-larrialdiko egoerei edo koiunturei emandako erantzunak	Adierazgarria	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Euskal harrera ereduaren hedapena + Trapezistak	Adierazgarria	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Trakzio-proiektuak eta garatutako jarduerak osagarriek agerian uzten dute koherentzia handia dagoela integrazioaren helburuarekin, pertsona zaurgarriei gizarte zerbitzu integralak, koordinatuak eta parte hartzaileak eskaintzean zentratzen dena. Nabarmentzekoa da ekintza askok maila administratibo (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) eta Euskadiko Hirugarren Sektore

Sozialeko erakunde desberdinak inplikatzeko dituztela, lankidetzaren gobernantza sendotzera bideratuta. Gainera, ardatz horren ekintzek hainbat kolektiboren arreta biltzen dute (adingabeak, arriskuan dauden gazteak, emakumeak, bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonak, etorkinak), zeharkako ikuspegi multidimentsionalaren alde eginda.

Ekintza horiek banakako inklusioan zein kohesio komunitarioan jarri dute arreta. Foru mailan, Gipuzkoatik nabarmendu da arreta mailen arteko koordinazioa hobetu dela, eta Bizkaitik eta Arabatik, berriz, estrategia espezifikoak ezarri direla, egoitza-bazterketaren estalduran aurrera egitea ahalbidetu dutenak. Toki-eremuan, ekintzek eta programek prebentzio-, komunitate- eta prestakuntza-ikuspegiak uztartzen dute, autonomia, trebetasunen garapena, parte-hartze soziala eta ongizate fisiko eta mentala sustatuta.

Azpiarratzekoak dira laguntza-metodologiaren eta esku hartzeko protokoloen pilotajeari, arreta espezializatuko programak eta baliabideak sortzeari eta garatzean eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokan funtsezko estrategiak bultzatzeari dagokionez egindako aurrerapenak. Gainera, sistemen arteko (sozialak, soziosanitarioak...) interakzio-mahaiak edo -espazioak sortzeari balioa ematen zaio, bai eta Hirugarren Sektorearekin lankidetzan aritzeari ere, sistemen arteko begirada koordinatuak behar dituzten arazoei erantzuteko.

Hartzaileengan duten eraginari dagokionez, aipagarriak dira kulturartekotasunean eta harreran egindako aurrerapenak, erakundearen arteko koordinazioa eta Hirugarren Sektore Sozialaren parte-hartze aktiboa sustatuta; gizarteratze-prozesuetan dauden gazteei laguntza soziala eta komunitarioa ematea, edo parte-hartze aktiboa eta haurren eskubideen bermea sustatzea. Adingabeei, gazteei, familiei eta atzeritar jatorriko pertsonen zuzendutako ekimenek inpaktu positiboak eragin dituzte trebakuntzan, enpleguan, gaitasun digitaletan eta partaidetza zibikoan, baina proiektu batzuek nolabaiteko muga erakusten dute estaldurari edo baliabideei dagokienez. Harrera-ereduak eta gune pilotuak abian jartzeak erakundearen arteko koordinazioa, premiei aurrea hartzea eta integrazio jasangarria indartzen ditu, aniztasuna eta gizarteratzea modu eraginkorragoan eta koordinatutakoan kudeatzen lagunduta.


Emaitza horiek erakusten dute garapen garrantzitsuak egin direla hainbat kolektibo zaurgarriaren dimentsio anitzeko beharrei eta problematikari erantzuteko, bai eta erakundearen arteko koordinazio-prozesuak eta gizarte-ekimenarekiko lankidetzaren prozesuak sendotzen ari direna ere, zerbitzuak sendotzeko eta gero eta arreta pertsonalizatuagoa lortzeko. Arreta-ibilbideen egituraketa ere aipagarria da, bai eta pertsonalizazioarekin lerrotzeko diren esku hartzeko metodologiaren berrikuntzaren aldeko apustua ere. Agerian uzten dute, halaber, parte-hartze komunitarioaren eta erantzunak sortzen ari diren testuinguruetara zein behar espezifikoetara egokitzearen aldeko apustua.

Horrela, etorkizuneko aurrerapenei begira, egokia litzateke programa pilotuetako edo esperientzia berrietako ikaskuntzak sendotzea, etorkizuneko proiektuak bideratzerako garaian, fokuak jarraitu dezan edo zabaldu dadin; bai eta ahaleginak esparru partekatu batean bateratuko dituen lurralde-homogeneizazioan aurrera egiteko ere, baliabideen iraunkortasuna ere bermatzeko. Garrantzitsua dirudi, halaber, sistemen arteko interakzioa indartzen jarraitzea, ibilbide integralak eta inpaktuaren jarraipen- eta ebaluazio-sistemak bermatzeko, gizarteratze-, laneratze- eta komunitate-prozesuetan egindako aurrerapenak identifikatzea ahalbidetuko duten adierazleekin.


Laburbilduz, zeharkako ahalegina egin da baliabideak, erakunde-mailak (Eusko Jaurlaritzak, aldundiak eta udalak) eta sektoreak (publikoa eta hirugarren sektore soziala) integratzeko eta GZESren funtsezko printzipioei erantzuteko, hala nola arreta integrala, pertsonalizatua eta komunitarioa. Oro har, aurrerapen adierazgarriak egin dira proiektu edo jarduerak batzuetan (nahi ez den bakardadea, larrialdi-egoerak, euskal harrera-eredua), baina, beste batzuetan, aurrerapenak agian apalagoak izan dira orain arte, eta garapen handiagoa behar dute.

Ondorio gisa

Proiektu eta jarduera osagarrien aurrerapen mailari buruz jasotako informazio kualitatiboa kontuan hartuta, proiektu/jarduera batzuk nabarmendu behar dira, hedapen handiagoa dutelako, eta beste batzuetan, berriz, horiek garatzen jarraitzeko ahaleginak areagotu daitezke.

 **Hauek dira garapen handiagoa izan** duten proiektuak eta jarduerak:

- **Krisiak eragindako gizarte-larrialdiko egoerei edo koiunturei erantzutea:** erabat osatutako ardatzaren jarduera bakarra da (GLL, amaiera-bonua, pobrezia materiala...), eragin zuzena eta jarraitua, eta gogobetetze handia emaitzekin.
- **Etixerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (EGPEE): dinamismo handia:** gaueko baliabideak eta eskakizun txikikoak hedatzea, koordinazio protokoloak, Housing First/Housing Led programak, kaleko taldeak eta foru estrategia aurreratuak.
- **Euskal harrera ereduaren hedapena + Trapezistak:** aurrerapen adierazgarriak: kultura arteko ereduak, harrera zirkuituak indartzea, erakunde eta udalerriekin koordinatzea, gaitasunak handitzea eta esperientziak ebaluatzea.

 **Hauek dira garapen handiagoa behar** duten proiektuak eta jarduerak:

- **Espazio soziohabitazionala:** garapen kontzeptuala, batez ere. Oinarri eta dokumentu batzuk egiten ari dira, baina ez dira behar bezala inplementatzen. Justiziarekiko eta etxebizitzarekiko elkarguneak argitzea eta ereduak operatibizatzeko beharra.
- **Bazterketa-sarearen deskontzentrazioa eta artikulazioa:** aurrerapen irregularrak eta oso diferentzialak lurraldeen artean. Lurralde-deskontzentrazioa eta lehen eta bigarren mailako artikulazioa diseinu- eta pilotaje-fasean daude oraindik. Mugatutzat jotzen den inpaktua.
- **Haur Bermearen Euskal Estrategia (HBEE), Aukerak Suspertzen barne:** 2024an onartu zen, baina 2030era begira; beraz, hedapena hasierakoa da oraindik. Kontzentrazio operatibo handiagoa eta erakunde arteko koordinazio-mekanismo egonkorak behar ditu.

Aurrera egiten jarraitzeko ikaskuntzak eta lerroak

Ardatz honetan, aurrera egiten jarraitzeko honako ikaskuntza eta ildo hauek nabarmendu daitezke:

- Lankidetzaren instituzional eta profesionalaren kultura **indartzea**; bereziki bazterketaren kasuan, kasu konplexuen koordinatzaileen figura **bultzatzea**, koordinazioa **dinamizatze**ko.
- Malgutasun metodologikoa **aplikatzea**, ordutegiak **egokitzea** eta harreman- eta emozio-lotura **sortzea** parte-hartzaileekin, baztertuta dauden pertsonekin esku hartzeko prozesuetan funtsezko faktore gisa.
- Esperientzia pilotuak eta programa berritzaileak **garatzea**, zerbitzu eraginkorrak **diseinatze**ko.
- Pertsona zaugarrien parte hartzea **sustatzea** eta komunitatearen inplikazioa bultzatzea, esku-hartzeen eraginkortasuna **handitze**ko.
- Erakunde eta udalerriekin komunikazio eta koordinazio bide arinak **mantentzea**, larrialdi edo krisi egoerei hobeto **erantzute**ko; prozedurak **arintzea** eta artatutako pertsonen buruzko informazio eguneratua **izatea**, eraginkortasuna eta emaitzen ebaluazioa **hobetze**ko.

- Adingabeentzako politiken zeharkakotasuna **bermatzea**, erakundeen arteko koordinazio eraginkorra **ezarri**; 2/2024 Legean aurreikusitako koordinazio organoa **sortzea**, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta udalen arteko haurren arloko lankidetzaren antolatzea.
- Migrazioaren eta harreraren kudeaketa **planifikatzea eta koordinatzea** eragileen artean, migratzaileentzako arretaren eraginkortasuna **hobetzeko**; harrerarako espazio fisikoak **gaitzea**, sistemaren agerikotasuna eta funtzionamendua **indartzeko**.

4.3. Oreaken ardatza

Laburpen gisa, taula honetan ageri dira autonomiaren ardatzaren helburu estrategikoak, ardatz horren barruko 2 trakzio-proiektuak (urdinez) eta 3 jarduketa osagarriak (grisez), bai eta horietako bakoitzaren arduradun instituzionalak ere.

HELBURU ESTRATEGIKOA	TRAKZIO-PROIEKTUAK/JARDUKETA OSAGARRIAK	ERAKUNDEETAKO ARDURADUNAK
Familia-zaintzak erakunde-zaintzarekiko (erantzukizun publikokoa) duen pisua murriztea, zaintzen dutenen zaintza instituzionala indartuz eta familia-zaintza aske, kritiko, erantzukide eta mugatu baterako baldintzak sustatuz; beraz, zainketa instituzionalarekin artikulatuta dagoena.	Gizarte-zaintzen aldeko Euskal Ituna lortzea.	Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Ongizate Sailburuordetza
	EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapa hedatzea eta zaintza instituzionalaren bilakaeraren jarraipena egitea, nor den zaindua eta nork zaintzen duen senidea, zainketa guztiei dagokienez	Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundiak eta Udalak
	Gizarte- eta osasun-arloko eta eremu soziosanitarioko profesionalak erakartzeko eta itzultzeko ekimen bat bultzatzea.	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila (lehen Berdintasun, Justizia eta Politika Saila), Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.
	Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria (FZLE) 2021-2030 hedatzea	Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila (lehen Berdintasun, Justizia eta Politika Saila), Osasun Saila
	Zainketa sozialen arloko kontziliazio- eta erantzukidetasun-ekimenak garatzea eta aberastea, bizitza osoan	Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saileko Haurtzaro eta Familia Zuzendaritza

Proiektuen eta jarduketaren exekuzio maila

Ardatz honetako proiektuen eta jardueren garapena desberdina izan da. Horietako biren gauzatzea mugatua izan da, diseinu-fasean baitaude oraindik. Beste jarduerak partzialki garatu da eta beste bat osatu egin da (kontziliazio- eta erantzukidetasun-ekimenak).

EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Mapa hedatzeko trakzio-proiektuari dagokionez, erritmo eta intentsitate desberdinak ikusten dira lurraldeen artean.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jauriaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zaintzen aldeko Euskal Ituna	Diseinuan	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparen hedapena	Eginda	Partzialki gauzatua	Diseinuan	Partzialki gauzatua
Profesionalak artatzeko, atxikitze eta itzultzeko ekimena	Diseinuan	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria (FZLE) (2021-2030).	Partzialki	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Kontziliazio- eta erantzunkidetasun-ekimenak	Eginda	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Egindako ekintza zehatzak

Ardatz honetako proiektu eta jardueren esparruan, erakunde arduradunek hainbat ekintza jarri dituzte abian. Jarraian, **adibide azpimarragarriak** biltzen dira:

Eusko Jauriaritza

- Zaintzen aldeko herrialde-itun baterako oinarriak: Eusko Jauriaritzak itunaren aurreko prozesu bat bultzatu zuen, eta hiru akordio lortu zituen gizarte-eragileekin, Elkarriketa Sozialerako Mahaiaren bidez, Elkarriketa Zibilerako Mahaiaren bidez eta erakunde mailan. Hausnarketa Emakundeko Aholku Batzordearekin eta Migrazio eta Asiloaren Euskal Foroko Berdintasun Batzordearekin partekatu zen.
- Eusko Jauriaritzako zaintzaileei laguntzeko proiektu espezifikoak, hala nola ZAINTEL (familia zaintzaileentzako arreta eta laguntza), LAGUNTZABIDE (zaintzaileentzako baliabideak eta laguntzak indartzea) edo ZAINDOO (familia zaintzaileentzako aplikazio digitala) edo BetiOn zerbitzuko erabiltzaileen zaintzaileei laguntzeko programa.
- KONTZILIA proiektua, erakundeentzako laguntza ekonomikoei buruzkoa, kontziliazioaren arloko diagnostikoak eta ekintza-planak egiteko eta kontziliazio-laguntzak emateko, langileen eta familien beharretara egokitutako lerro espezifikoekin (E, N, D, Z), adingabeak eta mendeko senideak zaintzea barne, bai eta ordeko langileak kontratatzea ere.

Arabako Foru Aldundia

- Zaintzaileentzako laguntzak indartzea Araban Zainduz programaren bidez (elkarri laguntzeko taldeak, etxez etxeko laguntza psikosoziala eta ingurunea egokitzeko aholkularitza).
- Gizarte Zerbitzuen Mapari lotutako aurrerapenak, Arabako 2024ko EAEko Mapan lurralde eranskinak sartuta eta Arabako 2024-2030 Gizarte Zerbitzuen Maparako aurretiazko diagnostikoa eginda

Gipuzkoako Foru Aldundia

- Zaintzaileentzako laguntzak indartzea, hainbat ekimen edo zerbitzuren bidez, hala nola hamabostean behin autolaguntzako taldeak eta adinekoentzako eta zaintzaileentzako etxeko laguntza soziopedagogikoa, zaintzaileentzako atsedeen-zerbitzuak, mendekotasuna duten pertsonen eta zaintzaileen urteko etxeko jarraipena.
- Gipuzkoako 2024-2030 Gizarte Zerbitzuen Mapa onartzea eta hedatzea.

Toki- eta udal-eremua (ekarpenen lagin txiki batean oinarrituta).

- Nahi ez diren bakardadeen aurreko Euskal Strategiari lotutako udal-programak, zaintzaileentzako estimulazio kognitiboko tailerrak, autolaguntzako eta etxez etxeko laguntza

soziopedagogikoko hamabostean behingo taldeak barne, autonomia eta ingurunean geratzea errazteko.

- Zaintzaileentzako atsedeen-zerbitzua, mendekotasuna duten pertsoneri etxez etxeko arreta emanez, eta zaintzaileek beren burua zain dezaten erraztuz.
- Gizarte-langileek urtean behin etxeko bisitak eta jarraipenak egitea, beharrak detektatzeko eta zerbitzuak antolatzeko.
- Udalak Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren (GZIES) garapenean parte hartzea, datuak biltzen eta kudeatzen lagunduz.

Faktore bideratzaileak eta oztupoak

Ardatz honetako proiektu eta jardueren esparruan, erakunde arduradunek faktore bideratzaile eta oztupo hauek identifikatu dituzte. Jarraian, adierazgarrienak bilduko ditugu:

Zainketa-eredua agenda politikoan sartzeak erakundeen babesa eta esparru estrategiko argia eman ditu. Plangintza-tresnen arteko koordinazio teknikoak ekintzak lerrokatzeko eta gauzatze koherentea ziurtatzeko aukera eman du. Baliabide ekonomiko nahikoak izateak eta administrazioen eta erakundeen arteko lankidetzak inplementazio iraunkorra erraztu dute. Informazio sistema zentralizatuak egoteak aukera eman du beharrak monitorizatzeko, erabakiak bideratzeko eta plangintza hobetzeko.

Oztopoei dagokienez, sailen eta erakundeen arteko koordinazioa erronka bat da, eta horrek atzerapenak eta doikuntzak eragin ditzake plangintzan. KONTZILIA proiektuan, berariaz, izapidetzean izandako arazoek Aginduaren argitalpena atzeratu zuten, eta eskaerak aurkezteko benetako epea murriztu zuten.

Ardatz honetako trakzio-proiektuetan eta jarduera osagarrietan, desberdintasunak hauteman dira eragileek egindako balorazioetan, eta, oro har, garapen zehatzek baldintzatutako datuak dira.

Jardueraren ardatza izan da zaintzak ematean eta familia eta lana uztartzean ekitatea, jasagarritasuna eta erantzukidetasuna bermatzea. Aztertutako aldian, aurrerapen nabarmenak ageri dira adostasun sozial eta instituzionaleko esparruak sendotzeari dagokionez, bai eta kontziliaziara eta erantzukidetasunera bideratutako neurriak sustatzeari dagokionez ere, nahiz eta oraindik ere erronkak dauden irismenari, parte-hartzeari eta finantza-iraunkortasunari dagokienez.

Proiektuen eta jardueren emaitzen balorazioa

Oro har, begi-bistako emaitzak identifikatu dira, baina aurrerapen handiagoa espero da Zainketen aldeko Itunean eta profesionalak atxikitzeko eta itzultzeko ekimenean, besteak beste.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jauriaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zaintzen aldeko Euskal Ituna	Onargarriak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparen hedapena	Onak	Onak	Onak	Onargarriak
Profesionalak artatzeko, atxikitze eta itzultzeko ekimena	Onargarriak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria (FZLE) (2021-2030).	Onargarriak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Kontziliazio- eta erantzunkidetasun-ekimenak	Onargarriak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Proiektuek eta jarduketek helburu estrategikoari egiten dioten ekarpen-maila

Familia-zaintzak zaintza instituzionalaren aldean duen pisua murrizteko helburu estrategikoari ardatzak egiten dion ekarpenari buruzko pertzepzioa aldatu egiten da proiektuaren eta lurraldearen arabera, nahiz eta oro har nabarmentzen den Zaintzen aldeko Euskal Itunaren eta II. Maparen hedapenaren eragin positiboa.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jauriaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zaintzen aldeko Euskal Ituna	Esanguratsua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
EAEko Gizarte Zerbitzuen Maparen hedapena	Esanguratsua	Mugatua	Esanguratsua	Gakoa
Profesionalak artatzeko, atxikitze eta itzultzeko ekimena	Moderatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria (FZLE) (2021-2030).	Moderatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Kontziliazio- eta erantzunkidetasun-ekimenak	Moderatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Zaintza eredu publiko, komunitario eta erantzunkide baterako trantsizioak, zeregin horien feminizazio historikoa murriztea xede duenak, bat egiten du II GZPEren genero berdintasunerako helburuekin. Hala, Eusko Jauriaritzak oinarritzeko prozesua bultzatu du etorkizuneko Zaintzen aldeko Herri Itun bat eraikitze. Akordioak lortu ditu eragile sozial eta instituzional nagusiekin, Elkarrizketa Sozialeko Mahaian, Elkarrizketa Zibilaren Mahaian eta eremu instituzionalean formalizatuta, eta horrek aukera eman du konpromiso komunak lerrokatze eta hausnarketa eragile garrantzitsuekin partekatzeko. Prozesu hori aurrerapauso kualitatiboa da zaintzen gobernantza partekaturako bidean, oinarriak ezartzen baititu arlo horretako etorkizuneko politika integraletarako. Gainera, erreferentziako esparru komun gisa jarduten du jada lortutako oinarritzeko akordioetarako, eta horrek kohesio instituzionala eta epe ertain eta luzerako plangintza estrategikoa indartzen ditu.

Kontziliazioari dagokionez, enpresentzako eta familientzako laguntzek horren aldeko ingurunea sortu dute. Hori sustatzeko enpresei ematen zaizkien laguntza-lerroak modu onargarrian ebaluatzen dira inpaktuari dagokionez, nahiz eta partaidetzan beheranzko joera duten. Alde horretatik, emandako datuek erakusten dute efizientzia dagoela gauzatzean, baina parte-hartze baxuak iradokitzen du beharrezkoa dela deialdien baldintzak, zabalkundea edo egokitapena berrikustea, eskaera handiagoa bultzatzeko. Familientzako laguntzei dagokionez, balorazio orokorra positiboa da, eta ildo gehienetan arrazoizko betetze maila dagoela nabarmentzen da. Gauzatzearen

ehunekoak neurrizkoak diren arren, emaitzak koherenteak dira II. GZPEren helburuekin, eta genero-ekitaterako eta familia-erantzukidetasunerako orientazio progresiboa erakusten dute.

Ardatzeko ekimenek aurrerapen iraunkorra erakusten dute bizitza pertsonalaren, lanaren eta familiaren arteko orekarantz eta zainketen birbanaketa bidezkoagorantz.

Eragile sozial eta instituzionalekin lortutako akordioek sistemaren kohesioa eta zaintzaren arloko irismen luzeko politikak eraikitzea indartzen dute. Gainera, lankidetzak kulturaren eta eragileen arteko erantzukidetasunaren erakusgarri dira, zainketen esparru partekatu bateranzko aurrerapenak bermatzen baitituzte.

Lan- eta familia-adierazleek indarrean dauden neurrien eraginkortasun onargarria iradokitzen dute, baina mugatua da eskariaren murrizketagatik eta gizarte- eta lan-errealitate berrietara egokitzeko laguntza-lerroen diseinua doitzeko beharragatik.

Hala, ardatz honetako proiektuek eta jarduketek honako hauei erantzuten diete: autonomia-erkidegoan zaintza-politikak garatzeko esparru estrategiko komun bat sortzeari; zaintzak ematean erantzukidetasuna bultzatzeari, familia- eta lan-rolak orekatuta; enpresek eta familiek borondatez parte hartzeari, kontziliazio-jardunbide egokiak hartzeko benetako interesa erakutsita; eta genero-berdintasunean laguntzeari, zaintza-erantzukizunak birbanatuta eta eszedentziei edo lanaldi-murrizketei lotutako soldata-kontentsazioaren bidez.

Oro har, orekaren ardatzak aurrerapausoak erakusten ditu kontziliazio, erantzukidetasun eta zaintza politiken artikulazioan, bai eta erakundeen eta gizartearen arteko adostasunean ere. Ildo batzuen gauzapenak hobetzeko marjina badu ere, emaitza globalak positiboak eta planaren helburuekin koherenteak dira, eta nabarmentzekoa da oinarri komun bat sortu dela sistema orekatuagoa, bidezkoagoa eta iraunkorragoa indartzeko.

Ondorio gisa

Proiektu eta jarduera osagarrien aurrerapen mailari buruz jasotako informazio kualitatiboa kontuan hartuta, proiektu/jarduera batzuk nabarmendu behar dira, hedapen handiagoa dutelako, eta beste batzuetan, berriz, horiek garatzen jarraitzeko ahaleginak areagotu daitezke.

 **Hauek dira garapen handiagoa izan** duten proiektuak eta jarduerak:

- **EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Maparen hedapena:** aurrerapen esanguratsuak, Eusko Jaurlaritzaren buru dela (proiektua osatuta), aurrerapenak eginez Araban (eranskinak eta uneko diagnostikoa) eta Gipuzkoan (mapa onartuta eta sortutako lehen plazarak). Lurraldeen arteko garapena oraindik desberdina da.
- **Kontziliazio- eta erantzukidetasun-ekimenak:** ardatzean osatutako jarduera bakarra da. Laguntzen hedapen zabala (Kontzilia), diagnostikoak erakundeetan, adingabeak eta mendekoak zaintzeko ildo espezifikoak, ordezkapenak eta erantzukidetasunari laguntzea.
- **Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitaria (FZLE):** Zaindu/Zainduz bezalako programak, laguntza-taldeak, atsedeen hartzeko taldeak, etxeko laguntza emateko taldeak eta laguntza teknikoak modu egonkorrean ezartzea. Gauzatze maila ona eta ardatzaren helburuarekin lerrotatuta.
- **Zaintzaileen proiektua (itunaren barruan):** laguntza programen garapen esanguratsua (Zaintel, Laguntzabide, Zaindoo, BetiOn laguntza). Hedapen praktikoa eta aurrerapen jarraituak zaintzaileentzako euskarrian.

 **Hauek dira garapen handiagoa behar duten proiektuak eta jarduerak:**

- **Gizarte Zaintzen aldeko Euskal Ituna:** oraindik prestatzen ari den prozesua: elkarriketa sozial, zibil eta instituzional aurreratua, baina oraindik itun formala sinatu gabe. Konpromisoak eta ibilbide orri operatiboa zehaztea eskatzen du.
- **Profesionalak artatzeko, atxikitze eta itzultzeko ekimena:** garapen hasiberria, beste jarduerak baino trakzio txikiagoarekin. Aurrerapen partzialak prestakuntzan eta laguntzan, baina ez dago estrategia osorik hedatuta profesionalen urritasunari eta atxikipenari aurre egiteko.

Aurrera egiten jarraitzeko ikaskuntzak eta lerroak

Ardatz honetan, aurrera egiten jarraitzeko honako ikaskuntza eta ildo hauek nabarmendu daitezke:

- Erakundeak, zainzaileak eta zainduak, eta euskal gizartea **inplikatzea, parte-hartze aktiboa eta gobernantza partekatua** sustatzeko. Topaketa parte hartzaileek benetako beharrak identifikatzen eta erantzunak elkarlanean eraikitzen laguntzen dute.
- **Arreta parte-hartzailea, integrala, hurbila, jarraitua** eta pertsona bakoitzaren testuingurura egokitua izatearen garrantzia **aitortzea**. Alde horretatik, funtsezkoa da **koordinazio soziosanitarioan** aurrera egitea, beharrei modu osoagoan eta eraginkorragoan heltzeko.
- **Zaintzaileei laguntzeko** dauden programak eta zerbitzuak **indartzea eta hedatzen jarraitzea**. Horretarako, zerk funtzionatzen duen ondo eta zerk eskatzen dituen doikuntzak identifikatzeak zerbitzuak hobetzen lagunduko du.
- **Zaintzaileen Estatutuaren** garapenean eta **Zaintzen aldeko Herri Itunean aurrera egitea**, esparru arauemaile eta estrategiko sendo baterako.
- Lana eta familia uztartzeari dagokionez, bi gurasoak lanean dituzten familientzako **laguntzetan sakontzen jarraitzea**, eta enpresak kontziliazio-planen garrantziari buruz **kontzientziatzen jarraitzea**, KONTZILIA parte har dezaten erraztuz, eskaera-epean doikuntzak eginda.

4.4. Artikulazioaren ardatza

Laburpen gisa, taula honetan ageri dira artikulazioaren ardatzaren helburu estrategikoak, ardatz horren barruko 6 trakzio-proiektuak (urdinez) eta jarduketak osagarria (grisez), bai eta horietako bakoitzaren arduradun instituzionalak ere.

HELBURU ESTRATEGIKOA	TRAKZIO-PROIEKTUAK/JARDUKETA OSAGARRIAK	ERAKUNDEETAKO ARDURADUNAK
GZESren kudeaketa integratu eta kolegiatuan aurrera egitea, legearen 40. artikulua Eusko Jaurlaritzari bere koordinazio-eskumenak baliatuz esleitzen dizkion eginkizunak bultzatuz.	Zorroaren Dekretua ebaluatzea eta araudia garatzen aurrera egitea.	Eusko Jaurlaritzako Bizitza Osorako Laguntzen Zuzendaritza (lehen Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza), Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Goi Ikuskaritzako Organoa eta GZEO
	Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) diseinatzea eta hedatzea	Eusko Jaurlaritzako Bizitza Beterako Laguntzen Zuzendaritza, GZEO eta

		Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua
Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB) sustatzea	Eusko Jaurlaritzaren Bereziki Beterako Laguntzen Zuzendaritza	
Ebidentzian, ebaluazioaren kulturaren eta kalitatearen ebaluazioan oinarritutako politiken kudeaketa sustatzea	Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta EUDEL	
GZESren eraldaketa digitala bultzatzea	Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta EUDEL	
GZESren elkarlaneko gobernantza-eredu bat bultzatzea, erakundeen arteko eta beste sektore batzuekiko lankidetzakulturarekin bat datozen prozedura eta tresna zehatzekin (Besaide proiektua)	Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta EUDEL	
Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema (GBES) indartzeko ekimena diseinatzea eta abian jartzea.	Eusko Jaurlaritza, GZESren lankidetzak	

Proiektuen eta jarduketaren gauzatze maila

Ekimenen gauzatze-maila nahiko altua da, proiektu gehienak partzialki edo erabat garatu baitira. Sendoen artean, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia nabarmentzen da. Ekimen hasiberriak ere badaude, hala nola Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema eta Berrikuntzaren Ekosistema, diseinu-fasean daudenak.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Zorroari buruzko Dekretua ebaluatzea eta arauak garatzea	Osatuta	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) garatzea	Diseinuan	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB)	Osatuta	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Kalitatearen ebaluazioa:	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua
Transformazio digitala	Partzialki gauzatua	Diseinuan	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua
Elkarlaneko gobernantza-eredua	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua
Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema	Diseinuan	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Egindako ekintza zehatzak

Ardatz honetako proiektu eta jardueren esparruan, erakunde arduradunek hainbat ekintza jarri dituzte abian. Jarraian, **adibide azpimarragarriak** biltzen dira:

Eusko Jaurlaritza:

- Zorroari buruzko Dekretuaren ebaluazioko lan-prozesu parte-hartzailean hamar hausnarketa-talde egin ziren 111 profesionalekin (administrazio publikoak eta erantzukizun publikoko erakundeak), eta 114 erabiltzailerik kontsulta egin zitzaizkien zuzenean, lan-taldeen eta elkarrizketa pertsonalen bidez.
- GZIESren proposamena diseinatzea, GZIES ezartzeko eta eraikitzekeko estrategia, batzordeak eta lantaldeak ezarrita, adierazlearen diseinu partziala, informazio iturrien identifikazioa eta homogeneizazio semantikorako irizpideak.

- Aurrerapenak Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia eta haren web-plataforma sendotzean, datu-bankua, gaurkotasuneko zentroen eta atalen direktorioa, topaketak, txosten monografikoak...; esperientziak trukatzeko topaketak antolatzea, sareak sortzea, sektorea ikusaraztea eta berrikuntza bultzatzea; produktu propioak garatzea: Gizarteratuz txosten monografikoak eta elkarrizketak.
- Ebidentzietan eta kalitate-ebaluazioan oinarritutako kudeaketari buruzko aurrerapenak: jardunbide egokiei buruzko azterketa alderatuak, Egoitzei buruzko 2025eko Dekretua aldatzeko; kalitate-adierazleen oinarritzko multzo baterako akordioa foru-aldundiekin; Eguneko Arreta Zerbitzuaren Kalitate Eredurako lantaldea.
- Trapezistak eta BetiOn bezalako nazioarteko programen sistematizazioa eta transferentzia, sare europarretan eta globaletan parte hartzea (ESN, Zainketen aldeko Aliantza Globala).
- Eraldaketa digitalari lotutako ekimen-sustapena, hala nola Adimen Artifizial Inklusiboari buruzko Udako Ikastaroa, zaurgarritasun dokumentalaren proiektu pilotua 60 parte-hartzailerekin, telelaguntza prediktiboa Oarsoaldean, BetiOn-en 130 erabiltzailerentzat.
- Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialarekin elkarrizketarako eta erakunde arteko koordinaziorako espazioak bultzatzea (Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaian eta haren lanbatzorde tematikoetan), Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokia bultzatzea eta Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria aurkeztea.

Arabako Foru Aldundia

- Kalitatearen ebaluazioari dagokionez: ebaluaziorako praktika onak identifikatu eta zabaltzea eta ebidentzian oinarritutako politiketan gaitzea; kalitate-adierazleen sistema adinekoen egoitzazentroetan: pilotajea (2023-2024), 33 zentro eta 1.505 egoiliar; 2025etik, urtean bi bilketa.
- Eraldaketa digitalari dagokionez: GZESren eraldaketa digitalerako eredu eta lan-plana; Eusko Jaurlaritzarekin partekatutako adierazleerako GZIES proiektua; administrazio-espedienteen kudeatzaile berria; Tximeletetak-entzako CRM; DPBEBLO prestakuntza; Etxean Bai telelaguntza aurreratua; Segurtasun Eskema Nazionala (ENS) ezartzea.

Bizkaiko Foru Aldundia

- Kalitate-ebaluazioari dagokionez: proiektu pilotuen ebaluazioak (Hegan 0 Kota barne), babesgabetasun-egoeran dauden emakumeentzako bizitoki seguruetara igarotzeko ikerketak; adierazleetan oinarritutako jarraipenerako balorazio-sistema; arreta-intentsitatei buruzko azterketa pilotua; Gizarteratze Zerbitzuko kostuen azterketa.
- Eraldaketa digitalari dagokionez: balorazio, diagnostiko eta jarraipen prozeduren digitalizazioa eta automatizazioa; plazen eta itxaron-zerrenden kudeaketa informatizatzea; mendekotasunerako txosten sozial digitala garatzea; osasun txostenekin eta Osabiderekin elkarreragingarritasuna; zaintza pertsonalizatueterako eta etxe ereduko egoitzetarako autodiagnostikorako tresna digitala; gizarte eta ekonomia eragileekin lankidetzeta eta kontraste saioak.

Gipuzkoako Foru Aldundia

- Kalitatearen ebaluazioari dagokionez: Zaintza eta Politika Sozialen Ebaluazio Agentzia diseinatu eta martxan jartzea (2024-2027); Ikaskuntza eta Transferentzia Sarea hedatzea; Zaintza eta Politika Sozialen Agendaren monitorea 20>30.
- Eraldaketa digitalari dagokionez: Zainketetako eta Gizarte Politiketako Sailaren ekosistema digitala birdefinitzea (2023-2027); Hirugarren Sektorearen Eraldaketa Digitaleko programa (2024-2027); 20>30 Agendaren elkarlaneko gobernantza eredu hedatzea (2024-2027); boluntariora sustatzeko estrategia (2024-2027); Elkarrizketa Zibilerako Mahaia (2024-2027); Haur eta Nerabeentzako Lurralde Koordinaziorako Mahaia (2025-2027).

Faktore bideratzaileak eta oztopoak

Proiektuen eta jardueraren esparruan, erakunde arduradunek faktore bideratzaile eta oztopo hauek identifikatu dituzte. Jarraian, adierazgarrienak bilduko ditugu:

Bideratzaileen artean, profesionalen eta erabiltzaileen inplikazio aktiboa, Eusko Jaurlaritzaren lidergoa eta finantzaketa, eta erakundeen arteko lankidetzak nabarmentzen dira. Hainbat elementu nabarmentzen dira, hala nola adierazleen sistemak harrera ona izatea, proiektu digitaletan aurretik izandako esperientzia, sistemen arteko koordinazioa, elkarreragingarritasunerako erakundeen bultzada eta gobernantza parte hartzailearen ereduak. Hirugarren Sektorearekiko lankidetzak estua eta laguntza tekniko espezializatua ere nabarmentzen dira.

Ikuspegi partzialen, lurraldeen eta gorabeheren arteko aldeak eta sistemaren konplexutasun instituzionalaren ondoriozko mugak aipatzen dira, horrek koordinazioa moteldu eta adostasun homogeenak lortzea zailtzen baitu. Zeharkako estrategiarik eza, lurralde-asimetria eta eragileen arteko eten teknologikoa ere nabarmentzen dira. Beste oztopo batzuk hauek dira: proiektu digitaletan aurrekontuak egiteko eta aldaketa kudeatzeko zailtasunak, ebaluaziorako oztopo kulturalak, gaitasun digitalak indartzeko beharra, muga ekonomikoak, zurruntasun administratibo-burokratikoak, irizpide komunik ez izatea sortzen ari diren eremuetan eta premia sozial berrietara etengabe egokitzeko beharra.

Oro har, aurrerapen sendoak eta egiturazkoak egin dira GZESren egituraketan, eta nabarmentzekoak dira erakundeen arteko koordinazioa, ebaluazioaren instituzionalizazioa eta digitalizazioaren sustapena ardatz egituratzaile gisa. Garatutako ekintzek eredu integratuago, kooperatiboago eta ebidentzian oinarrituago bateranzko bilakaera islatzen dute, II. GZPERen printzipioekin koherentea dena. Proiektu batzuk oraindik garapen fasean dauden arren, balantze orokorra positiboa da, eta garatutako jarduerak epe ertainerako jasangarritasunerako eta berrikuntzarako oinarriak ezartzen dituzte.

Proiektuen eta jardueren emaitzen balorazioa

Emaitzen balorazio orokorra ona da, emaitza ikusgarriak eta zehatzak identifikatzen baitira. Emaitzei dagokionez, espero izatekoa da garapen handiagoa izatea oraindik diseinu-fasean dauden proiektuetan, hala nola berrikuntza-ekosistemetan. Halaber, erakunde batzuek nolabaiteko hobekuntza-marjina ikusten dute eraldaketa digitaleko proiektuaren emaitzetan.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Zorroari buruzko Dekretua ebaluatzea eta arauak garatzea	Onak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) garatzea	Onak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB)	Onak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Kalitatearen ebaluazioa:	Onak	Oso onak	Onak	Onargarriak
Transformazio digitala	Onargarriak	Onak	Onak	Onargarriak
Elkarlaneko gobernantza-eredua	Onak	Onak	Onak	Onargarriak
Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema	Txarrak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Proiektuek eta jarduketek helburu estrategikoari egiten dioten ekarpen-maila

Zorroaren ebaluazioaren ekarpena nabarmentzen da gako gisa. Erakundeek eta lurraldeek helburu orokorrari egiten dioten ekarpenari buruz duten pertzepzioa ez dator beti bat kalitatearen ebaluazioa, eraldaketa digitala edo gobernantza eredua bezalako proiektuekin.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
Zorroari buruzko Dekretua ebaluatzea eta arauak garatzea	Gakoa	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema (GZIES) garatzea	Esanguratsua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB)	Moderatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Kalitatearen ebaluazioa:	Adierazgarria	Adierazgarria	Adierazgarria	Mugatua
Transformazio digitala	Mugatua	Mugatua	Adierazgarria	Moderatua
Elkarlaneko gobernantza-eredua	Adierazgarria	Adierazgarria	Adierazgarria	Mugatua
Gizarte Berrikuntzaren Euskal Ekosistema	Mugatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estropolatzeko.

Nabarmentzekoa da foru-aldundiek GZESren eraldaketa digitalari buruzko trakzio-proiektuari dagokionez egiten duten emaitzen balorazioa positiboa dela; izan ere, emaitza onak lortu dituztela adierazten dute, helburu estrategikoari ekarpen moderatua eta/edo esanguratsua eginez.

Aurkeztutako ekimenek koherentzia handia erakusten dute gizarte-zerbitzuen euskal sistema egituratzeko helburuarekin, hau da, mekanismo komunak finkatzeko, erakundeen arteko koordinaziorako eta gobernantza, ebaluazioa eta kudeaketaren berrikuntza hobetzeko helburuarekin. Oro har, sistemak zerbitzu koordinatuagoak, eraginkorrak eta pertsonengan zentratuagoak eskaintzeko duen gaitasuna indartzen duten egiturazko aurrerapenak dira.

Trakzio-proiektuen multzoak eta jarduketa osagarriak agerian uzten dute mekanismo komunak eta koordinazioa gero eta sendoagoak direla, eta aurrerapen argiak egin direla GZESren kudeaketaren gobernantzan, ebaluazioan eta berrikuntzan. Ikuspuntu horretatik, artikulazioa plangintza estrategikotik eta ebaluazio-kulturatik zein digitalizaziotik eta erakundeen eta sektoreen arteko lankidetzatik lantzen da, elementu horiek funtsezkoak baitira sistema integratu eta eraginkor baterantz aurrera egiteko.

GZESren kudeaketa integratu eta kolegiatuan egindako aurrerapena agerian geratzen da, bai egituran, bai antolamenduan, bai metodologian. Erabaki estrategiko eta legegileak hartzeko oinarri den informazio sendoa sortu duen zorroaren dekretuaren ebaluazioa zein GZIESren eraikuntza funtsezko urratsak dira, batetik, erabaki estrategikoak bideratuko dituzten ikaskuntzak eta erronkak identifikatzeko aukera ematen duen ebaluazioaren kulturarentz, eta, bestetik, erakundeen arteko koordinaziorantz eta sistemaren gobernantza partekaturantz. Gainera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia ezagutzaren eta zabalkundearen erreferente gisa sendotzeak gizarte-zerbitzuen arloko gardentasuna, transferentzia eta funtsezko informazioaren hedapena indartzen ditu.

Ikuspegi metodologikotik edo prozesuen eta tresnen ikuspegitik, bistakoak dira digitalizazioarekin eta datuetan oinarritutako kudeaketarekin lotuta egindako bulkadak; eta, horiek, hobekuntza nabarmenak iradokitzen dituzte GZESren eraginkortasunari dagokionez. Aurrerapen horiek sendotu egiten dute administrazio eta zerbitzuen arteko artikulazio eraginkorrerako behar den teknologia- eta antolaketa-oinarria, nahiz eta oraindik ere hedapen- eta doitze operatiboko fasean dauden.


Gainera, ebaluazioaren kultura pixkanaka sendotzen ari dela ikusten da, kalitate-adierazleak sistematizatuz edo estandar komunak definituz eta funtzio hori indartzen duten agentziak sortuz. Horri dagokionez, eragileen inplikazio handia eta elkarlanerako prestutasuna nabari dira, dinamika horien jasangarritasunerako faktore erabakigarriak izanik.

Nabarmentzekoa da, halaber, Hirugarren Sektore Sozialak parte-hartze aktiboa eta jarraitua izan duela GZESren artikulazioan, Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala Sustatzeko Estrategia betez eta, bereziki, Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiko batzorde espezifikoaren bidez. Lankidetzara horri esker, sortzen ari diren arazoei modu koordinatuagoan ekin ahal izan zaie, eta, hala, baterako gobernantza eta egoera edo arazo berriei erantzun integrala ematea indartu dira.

Garrantzitsua izango da GZIESren operatibizazioan eta informazio sistemen elkarreragingarritasunean sakontzen jarraitzea, dagoeneko martxan dauden digitalizazio-prozesuak homogeneizatzen joatea eta proiektu teknologiko berriak pilotatzeko aukera bultzatzea. Gainera, kudeaketa optimizatzen dute eta sistemaren irismena zabaltzen dute. Ebaluazioarekin eta kalitatearekin lotuta egindako aurrerapenak agerian uzten dute diagnostiko hobea eta emaitzetara eta etengabeko hobekuntzara bideratuta dagoela. Berrikuntzari dagokionez, garrantzitsua izango da hura bultzatuko duten ekimenak eta mekanismoak garatzen jarraitzea.

Ondorio gisa

Proiektu eta jarduera osagarrien aurrerapen mailari buruz jasotako informazio kualitatiboa kontuan hartuta, proiektu/jarduera batzuk nabarmendu behar dira, hedapen handiagoa dutelako, eta beste batzuetan, berriz, horiek garatzen jarraitzeko ahaleginak areagotu daitezke.

 **Hauek dira garapen handiagoa izan duten proiektuak eta jarduerak:**

- **Zorroari buruzko Dekretua ebaluatzea eta arauak garatzea:** parte hartze handia izan du prozesuak, eta osatuta dago, ebaluazio-txostena eta finkatutako ondorioak eginda. Lanari esker, erronkak identifikatu eta etorkizuneko arau aldaketak bideratu ahal izan dira, Zorroaren eguneratzean argi eta garbi aurrera eginez.
- **Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia (GZEB):** sendotze garrantzitsua izan du, datuen plataforma, dossier monografikoak, zentroen direktorioa, topaketak, sareak eta produktu propioak (Gizarteratuz) zabalduz. Heldutasun eta ikusgarritasun maila handia.
- **Kalitatearen ebaluazioa:** aurrerapen sendoak: adierazleen erakunde arteko akordioak, zentroetako pilotajeak, ELZrako kalitate-ereduaren diseinua, Gipuzkoan Ebaluazio Agentziaren sorrera. Ebaluazio-kultura oso aktiboa.
- **Eraldaketa digitala:** hedapen handia: diagnostikoen automatizazioa, prozeduren digitalizazioa, elkarreragingarritasun soziosanitarioa, telelaguntza prediktiboa, lurraldeko ekosistema digitalak, AA inklusiboari buruzko ikastaroa.

 **Hauek dira garapen handiagoa behar duten proiektuak eta jarduerak:**

- **Elkarlaneko gobernantza-eredua:** aurrerapen partzialak: elkarrizketa-gune bultzatu dira, baina sendotze handiagoa, egitura egonkorren formalizazioa eta metodologia komunak behar ditu. Garapen desberdina erakundearen artean.
- **Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren (GZIES) garapena:** hasierako aurrerapena: diseinu-fasean zentratuta: egungo sistemaren diagnostikoa, definizio

metodologikoa, batzordeen sorrera eta adierazleen eta terminoen homogeneizazioaren lehen urratsak. Arkitektura teknologikoa, datuaren gobernantza eta sistemaren ezarpen eraginkorra sendotzea eskatzen du.

- **Gizarte Berrikuntzako Euskal Ekosistema:** garapen oraindik hasiberria: prozesu kontzeptualetara, sareetara eta berrikuntzako lehen lerroetara bideratuagoa, baina oraindik ezarpen mugatuarekin eta ardatzeko beste proiektu batzuek baino ikusgarritasun txikiagoarekin.

Aurrera egiten jarraitzeko ikaskuntzak eta lerroak

Ardatz honetan, aurrera egiten jarraitzeko honako ikaskuntza eta ildo hauek nabarmendu daitezke:

- Errealitatea hobeto ezagutzea ahalbidetzen duten prozesu parte-hartzaileen alde egitea.
- **Lan teknikoko foro eta talde egonkorrak** izateak esperientziak eta ezagutzak etengabe trukitzea errazten du, eta, beraz, egokia dirudi horiek sendotzen eta lurraldeen eta administrazio-mailen arteko koordinazioan aurrera egitea, irizpideak eta helburuak homogeneizatuz.
- **Datu egituratuen elkarreragingarritasuna eta kalitatea** indartzen jarraitzea.
- **Ebaluazio-kultura sustatzea** funtsezkoa da eta erakunde publikoetan ebaluatze gaitasuna handitzea eskatzen du, jardunbide egokien jarraipen- eta transferentzia-prozesuak sistematizatuz.
- **Gaitasun teknologikoak hobetzea eta** eraldaketa digital eraginkor eta inklusibo baterako **baliabideak bermatzea**, eraldaketa digitalean aurrerapausoak egiten jarraitzeko (telelaguntza, CRM...).
- Hirugarren Sektore Sozialarekin lankidetzaren esparruak **mantentzea** edo **indartzea**, **baliabide nahikoak eskainiz eta lagunduz**.

4.5. Ekitatearen ardatza

Laburpen gisa, taula honetan ageri dira autonomia-ardatzaren helburu estrategikoak, ardatz horren barruko bi traxzio-proiektuak (urdinez) eta bi jarduketa osagarriak (grisez), bai eta horietako bakoitzaren arduradun instituzionalak ere.

HELBURU ESTRATEGIKOA	TRAKZIO-PROIEKTUAK/JARDUKETA OSAGARRIAK	ERAKUNDEETAKO ARDURADUNAK
Genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala sustatzea GZESren arretan, kontingentzia guztietan eta kudeaketan, GZESren baliabideak erabiltzeko garaian unibertsaltasuna eta parekidetasuna bermatzeko,	GZESren arretaren eta kudeaketaren diagnostiko sakoneko aldizkako eragiketa bat diseinatzea, abian jartzea eta testatzea, genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik.	Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila
	“Zaintzaileak” proiektua garatzea.	Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila

GZEstik arreta aniztasunera egokitzeko eta diskriminazioari aurre egiteko.	Kohesio eta babes sozialari buruzko laborategi iraunkor bat diseinatzea eta abian jartzea	Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila
	Diskriminazioaren “behatoki” funtzioa sustatzea	Eusko Jaurlaritzaren Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Saila

Proiektuen eta jarduketan gauzatze maila

Bi ekimen burutu dira, bat oraindik hasi gabe dago (kohesioari eta gizarte-babesari buruzko laborategi iraunkorra) eta beste bat partzialki garatu da bi lurraldetan (GZESren diagnostikoa genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik).

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jaurlaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
GZESren diagnostikoa genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik	Hasi gabe	Partzialki gauzatua	Partzialki gauzatua	Hasi gabe
Zaintzaileak proiektua	Osatuta	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Kohesioari eta gizarte-babesari buruzko laborategi iraunkorra	Hasi gabe	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Diskriminazioaren behatokia	Eginda	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Egindako ekintza zehatzak

Ardatz honetako proiektu eta jardueren esparruan, erakunde arduradunek hainbat ekintza jarri dituzte abian. Jarraian, **adibide azpimarragarriak** biltzen dira:

Eusko Jaurlaritza

- “Pertsonen ahotsa” mahaia sortzea Zainketen Kongresuaren barruan, zaintzaileen, senideen, profesionalen eta zainduen arteko zuzeneko elkarriketarako gune gisa, arreta sistemaren ikuspegi gizatiarragoa eta integralagoa emanez.
- IKUSPEGI behatokia migrazioetik aniztasunera zabaltzea, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren ikuspegitik, ikerketa eta gizarte-sentsibilizazioan erreferente gisa sendotuz.
- Dibertsitateari eta diskriminazioari buruzko funtsezko ikerketak garatzea, hala nola EPADE inkesta (2020 eta 2024) eta NEURTO barometroa (2021, 2022, 2023).
- Tratu Berdintasunari eta Diskriminaziorik Ezari buruzko Kongresuaren jarraipena. Bi urtean behin egiten da, eta laugarren edizioa izango du 2025ean, arlo horretako hausnarketa eta politikak indartuz.

Gipuzkoako Foru Aldundia

- Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte zerbitzuak kontratatzeke eredu homoginoa eta genero ikuspegiduna finkatzea (2023-2026).
- Gipuzkoako herritarren zaintzari eta hazkuntzari buruzko pertzepzioaren azterlana egitea (2024), ikuspegi soziala jasotzera eta zaintza politika publiko berriak oinarritzera bideratuta.

Toki- eta udal-eremua (ekarpenen lagin txiki batean oinarrituta).

- Portugaleteko Udalak (2022) gizarte zerbitzuen agiri teknikoen berrikuspen integrala egin du, berdintasun irizpideak, koordinazioaren hobekuntza eta zerbitzuen ebaluazioa txertatuz.

Faktore bideratzaileak eta oztopak

Ardatz honetako proiektu eta jardueren esparruan, erakunde arduradunek faktore bideratzaile eta oztopo hauek identifikatu dituzte. Jarraian, adierazgarrienak bilduko ditugu:

Adierazitako faktore bideratzaileak bi elementu nagusitan zentratzen dira. Alde batetik, zaintzak gero eta presentzia handiagoa du agenda instituzional eta sozialean, bilakaera demografikoak bultzatuta, eta horrek adostasuna, baliabideen lehentasuna eta inplikaturako eragileen konpromisoa sortzen ditu. Bestalde, ikerketa-talde espezializatu bat eta tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren arloan finkatutako lan-ildo bat egoteak ikerketen jarraipena errazten du, haien kalitate teknikoa bermatzen du eta emaitzak politiketan eta praktikan aplikatzea errazten du.

Oztopoen artean administrazio-prozedura konplexuak aipatzen dira.

Oro har, ardatz honetako ekimenek, zeinetatik informazioa bildu baita, aurrerapen osagarriak emateaz gain, nahiko koherentzia erakusten dute II. GZPEren helburu estrategikoekin, eta agerian uzten dute ekitaterako orientazio argia eta zeharkako ikuspegiaren hedapena, genero-ikuspegia eta ikuspegi intersektionala, pertsonarengan oinarritutako zaintza eta aniztasuna GZESren esparruan xertatzea bilatzen duena.

Proiektuen eta jardueren emaitzen balorazioa

Erakunde guztiek egindako ekimenen emaitzen balorazioa ona da; emaitzak egokitzat jotzen dira, espero zena modu eraginkorrean bete delako.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jaurjaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
GZESren diagnostikoa genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik.	Hasi gabe	Onak	Onak	Hasi gabe
Zaintzaileak proiektua	Onak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Kohesioari eta gizarte-babesari buruzko laborategi iraunkorra	Hasi gabe	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Diskriminazioaren behatokia	Onak	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Proiektuek eta jarduketek helburu estrategikoari egiten dioten ekarpen-maila

Ardatz horretan, diskriminazioaren Behatokia bultzatzera bideratutako jarduera osagarriaren ekarpena nabarmentzen da bereziki, eta funtsezko aldatetarako bultzatu direla ulertzen da.

PROIEKTUA EDO JARDUERA	Eusko Jaurjaritza	Arabako Foru Aldundia	Bizkaiko Foru Aldundia	Gipuzkoako Foru Aldundia
GZESren diagnostikoa genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik.	Hasi gabe	Mugatua	Moderatua	Hasi gabe
Zaintzaileak proiektua	Moderatua	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Kohesioari eta gizarte-babesari buruzko laborategi iraunkorra	Hasi gabe	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio
Diskriminazioaren behatokia	Adierazgarria	Ez dagokio	Ez dagokio	Ez dagokio

Oharra: Taulak ez du udalen daturik jasotzen, lagina ez delako nahikoa datuak estrapolatzeko.

Deskribatutako ekintzek bilakaera iraunkorra islatzen dute gizarte-zerbitzuak hobetzera bideratutako politika publikoen finkapenean, eta koherentea da genero-ikuspegia zeharka sartzeko eta tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko ezarritako helburuekin. Erakundeek kalitatean, herritarren parte-hartzean eta zainketen zentraltasunean sakontzeko duten interesa nabari da, baita ezagutza eta analisi mekanismoak indartzeko ere. Nabarmentzekoa da zaintzaren, profesionalizazioaren eta zainzaileen eta zainduak direnen baldintzak hobetzearen arloan arreta pertsonalizatuarekiko konpromisoa.


Egiaztatu da benetako ahalegina egin dela genero-berdintasuna eta diskriminaziorik eza integratzeko, bai kontratazio publikoan, bai plangintza estrategikoan, eta, horrela, ekitateari laguntzen zaio, nahiz eta esparru horretan oraindik ere neurri eta estrategia gehiago zabaldu daitezkeen. Aniztasunaren inguruko ezagutzaren sorreran ere aurrerapenak egin dira. Horri esker, jarraipena eta bilakaeraren azterketa egin ahal izango dira, eta informatutako erabakiak hartzen lagunduko da. Horrez gain, aniztasunaren, tratu-berdintasunaren eta desberdintasun sozialean eragina duten beste gai batzuen fenomenoak sakon ulertzeko eta ezagutzeko aukera emango duten beste gai batzuetara zabaldu ahal izango da.

Proiektuek eta jarduketek jarraipena izango dutela aurreikusten denez, espero izatekoa da dagoeneko eginda daudenen gaineko aurrerapenak sendotzen jarraitzea. Gainera, parte hartzearen eta herritarrei irekitzearen aldeko apustuak, hala nola Zainketen Kongresuko mahaiak edo herritarren pertzepzioari buruzko azterlanek, gobernantza parte-hartzailearen eredia sustatzen dute.


GZESren kudeaketan aurrera egiten jarraitzeko, GZESren baliabideen erabileran unibertsaltasuna eta ekitatea lortze aldera, funtsezkoa izango da abian jarritako ekintzen emaitzen ebaluazioa sistematizatzea.

Ondorio gisa

Proiektu eta jarduera osagarrien aurrerapen mailari buruz jasotako informazio kualitatiboa kontuan hartuta, proiektu/jarduera batzuk nabarmendu behar dira, hedapen handiagoa dutelako, eta beste batzuetan, berriz, horiek garatzen jarraitzeko ahaleginak areagotu daitezke.

 **Hauek dira garapen handiagoa izan** duten proiektuak eta jarduerak:

- **Diskriminazioaren behatokia** hedapen handia egiaztatu da. Nabarmentzekoa da IKUSPEGI aniztasunerantz eta tratu-berdintasunerantz zabaldu izana, inkestak (EPADE), NEURTO barometroak eta diskriminaziorik ezari buruzko bi urtez behingo kongresuak. Ezagutzaren ekoizpen-bolumena handia izan da, eta jarduera egonkorra.
- **Zaintzaileak proiektua** aurrerapen esanguratsuak egiaztatu dira. “Pertsonen ahotsa” mahaiaren sorrera eta Zaintel, Laguntzabide, Zaindoo, BetiOn-etik laguntza bezalako programen garapena azpimarratu behar dira. Garapen praktiko ona eta jarraitutasuna egon dira.

 **Hauek dira garapen handiagoa behar** duten proiektuak eta jarduerak:

- **GZESren diagnostikoa genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektzionaletik:** garapena partziala izan da. Produktu garrantzitsuak daude (inkestak, azterlanak, analisiak), baina “GZESren diagnostikoa”, berez, ez dago erabat osatuta, ezta finkatuta ere, sistemaren dokumentu integral gisa.
- **Kohesio eta babes sozialari buruzko laborategi iraunkorra:** ardatzean aurrerapen gutxien duen jarduera da. Lurralde batzuetan hasi gabe bezala agertzen da. Aurrerapena oso mugatua izan da, eta ez da benetako hedapen operatiborik ikusi.

Aurrera egiten jarraitzeko ikaskuntzak eta lerroak

Ardatz honetan, aurrera egiten jarraitzeko honako ikaskuntza eta ildo hauek nabarmendu daitezke:

- Zaintzen **desfeminizaziorantz** aurrera egitea, erantzukizuna etxeetan eta emakumeengan neurritz kanpokoak izatea saihestuta.
- Zaintzen jasangarritasuna sustatzea, zaindutako pertsonen premien aniztasunari erantzungo dion **eredu pertsonalizatu eta komunitario** baten bidez.
- **Zainduen eta zaintzaileen** ahotsa modu eraginkorrean **txertatzea** zerbitzuen plangintzan eta ebaluazioan.
- Zaintzaileen **prestakuntza eta autozaintza** indartzea, arretan kalitatea eta enpatia ziurtatzeko.
- **Datuak eta informazio sistematikoa izatea**, Europako azterlanekin lerrokatuta, Tratu Berdintasunaren eta Diskriminaziorik Ezaren arloko plangintza eta erabakiak hartzea bideratzeko.
- Praktika **homogeneoak eta genero-berdintasunarekiko sentikorrak** finkatzea gizarte-zerbitzuen kudeaketan eta kontratazioan.
- Aniztasuna etengabe **behatzea** eta **aztertzea**, politika egokiagoak eta ebidentzian oinarritutakoak **garatzeko**.

5. GILTZARRIAK ETA ONDORIOAK

II. GZPEren proiektu eta jardueren jarraipenak Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren egoeraren ikuspegi zabala ematen du, eta haren aurrerapena bultzatzen ari diren eta hura baldintzatzen ari diren elementuak identifikatzea ahalbidetzen du. Irakurketa orokor horretatik abiatuta, hainbat eremutan aurrerapen adierazgarriak egin diren arren, aurrerapen horien erritmoa eta sakontasuna, neurri handi batean, egiturazko baldintza jakin batzuen eta administrazioaren mailak eta inplikaturako eragileak egituratzeko moduaren mende daudela ikusten da.

Lehenik eta behin, lortutako aurrerapenen zati garrantzitsu bat **argi eta garbi errazten duten faktoreen** presentziak azaltzen du. Erakundeen arteko koordinazioari, Hirugarren Sektorearekiko lankidetzari eta profesionalen, tokiko erakundeen eta erabiltzaileen inplikazio aktiboari esker, proiektuak koherentzia eta sendotasun handiagoz hedatu ahal izan dira. Era berean, arau-esparru eta esparru estrategiko egonkorak, lidergo instituzional zehatza eta baliabide nahikoz lagundutako plangintza egoteak ekimen asko berme handiagoekin garatu ahal izatea ekarri du. Osagarri gisa, tresna komunak eskuragarritasunak, informazio-sistema zentralizatuak eta elkarreragingarritasuna eta berrikuntza bultzatzeak aurrera egiteko ingurune egokia sortu dute, bai eta zainketak agenda publikoan duen gero eta zentraltasun handiagoak eta ikerketa-talde espezializatuak babesak ere.

Errazten duten elementu bideratzaile horiekin batera, hainbat ekimenen **garapena baldintzatu duten oztopoak** ere identifikatzen dira. Horien artean, nabarmentzekoak dira erakundeen eta eskumenen zatiketa, araudiaren eta administrazioaren konplexutasuna, eta, bereziki, udal-eremu jakin batzuetan eta profil konplexuagoi emandako arretan ikusten diren baliabide-mugak. Horri gehitu behar zaio informazio-sistema batzuen integrazio-falta, arrakala teknologikoa eta antolamendu-zurruntasun jakin batzuk, koordinazioa zailtzen eta aldaketa-prozesuak moteltzen dituztenak. Lurralde-heterogeneotasunak, zerbitzuen eta lurraldeen arteko erritmo desberdinek eta tokiko erantzunen aniztasunak, halaber, alde nabarmenak sortu dituzte gauzatzean. Era berean, administrazio-prozeduren konplexutasunak eta behar bezala finkatutako zeharkako estrategiarik ez egoteak eragin negatiboa izan dute jarduera batzuetan. Hori guztia, gainera, eskariari eta plangintzari eragin dieten kanpoko kontingentziek baldintzatu dute, bai eta programa jakin batzuek, bereziki bakardadeari lotutakoek, gizartean izan duten harrera mugatuak ere.

Bideratzaile eta oztopo horiek kontuan hartuta, **ardatzen arabera aurrerapen maila** aztertuz gero, zehatzago uler daiteke zer eremurik egin duten aurrera gehien eta zeinek behar duten bultzada gehigarria plan estrategikoa amaitu arte.

- **Autonomiaren ardatza:**

Ahalegin handia egin da proiektu kopuru handia aktibatzeke, eta ia guztietan aurrerapen argiak izan dira, baina lurraldeen artean aldeak daude hedapenaren intentsitateari dagokionez. Nabarmentzekoak dira, batetik, iraupen luzeko zainketen arloko ekimen berritzaileak, heren batean gutxi gorabehera gauzatzen direnak, eta, bestetik, etxeko eta komunitateko arreta-eredua garatzeko eta egoitza-zentroak egokitzeko proiektuak, erakunde parte-hartzaileek gehienbat positiboki baloratzen dituztenak. Lortutako aurrerapena gorabehera, gehienek uste dute proiektuek oraindik finkatze-prozesuak behar dituztela beren helburuak modu nabarmenagoan lortzen laguntzeko.

- **Integrazioaren ardatza:**

Oro har, jarduketan gauzatze-maila aurreratua da, eta horietako batzuk amaituta daude. Lortutako emaitzen balorazioa batez ere ona da, baina hobetzeko tarteak identifikatzen da proiektu batzuetan, hala nola Haur Bermearen Estrategian, espazio soziohabitazionalan edo bazterketa-sarearen deskontzentrazioan. Bereizki nabarmentzekoa da euskal harrera ereduaren hedapenak duen balorazio oso positiboa eta inklusio-sarea indartzeko egiten duen ekarpena.

- **Orekaren ardatza:**

Jardueren garapena desberdina izan da: batzuk diseinu-fasean daude oraindik, eta beste batzuk, berriz, amaituta daude. Oro har, begi-bistako emaitzak identifikatu dira, baina aurrerapen handiagoa espero da Zaintzen aldeko Itunean eta profesionalak atxikitze eta itzultze ekimenean, besteak beste. Oro har, Zaintzen aldeko Euskal Itunaren eta II. Maparen hedapenaren eragin positiboa nabarmentzen da.

- **Artikulazioaren ardatza:**

Ekimen gehienek aurrerapen maila ona dute, eta batzuk osorik osatu dira, hala nola Zorroari buruzko Dekretuaren ebaluazioa eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia. Beste batzuk, ordea, fase hasiberriagoan daude, bereziki Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistemaren garapena eta Gizarte Berrikuntzako Euskal Ekosistema. Emaitzen balorazio orokorra ona da, aurrerapen zehatzak eta ukigarriak identifikatu baitira, baina berrikuntzari eta eraldaketa digitalari lotutako emaitzen heldutasun handiagoa espero da. Bereziki garrantzitsua da zorroaren ebaluazioak sistemaren kudeaketa integraturantz aurrera egiteko helburuari egiten dion ekarpena, nahiz eta erakundeen eta lurraldeen pertzepzioak ez datozen beti bat kalitatearen ebaluazioa, eraldaketa digitala edo gobernantza-eredua bezalako ekimenekin.

- **Ekitatearen ardatza:**

Bi ekimen burutu dira, bat oraindik hasi gabe dago (kohesioari eta gizarte-babesari buruzko laborategi iraunkorra) eta beste bat partzialki garatu da bi lurraldetan (GZESren diagnostikoa genero-ikuspegitik eta ikuspegi intersektionaletik). Lortutako emaitzak egokitzat jotzen dira, aurreikusitako helburuak modu eraginkorrean bete direlako. Bereziki nabarmentzekoa da Diskriminazioaren Behatokiaren eragin positiboa, sistemaren arreta aniztasunera egokitzeko eta diskriminazioari aurre egiteko helburu estrategikoari dagokionez.

Laburbilduz, ardatzen araberrako **azterketa konparatuak** agerian uzten du planaren aurrerapena ez dela berdina, eta aurrerabide sendoagoak egin direla Integrazioan eta Artikulazioan, eta ondoren Autonomian; aldiz, Orekak eta, bereziki, Ekitateak hedapen-erronka handiagoak dituzte.

Integrazioaren ardatzak erakusten du aurrerapen sendoena eta homogeenoa, gauzatze maila handiarekin eta oso ondo baloratutako emaitzekin, bereziki gizarte-larrialdiei emandako erantzunetan eta harrerako euskal ereduaren hedapenean, zeinak argi eta garbi lagundu baitu inklusio-sarea indartzen. Artikulazio-ardatzak, aurrekontuan pisu txikiagoa izan arren, aurrerapen garrantzitsuak lortu ditu egiturazko ekimenetan, hala nola sistemaren eta zerbitzu-zorroaren ebaluazioan, eta oinarri garrantzitsuak ezarri ditu kudeaketa integraturako; hala ere, erronkak daude oraindik zenbait arlotan, hala nola berrikuntzan eta eraldaketa digitalean.

Autonomiaren ardatzak baliabide bolumen handiena biltzen du, eta aurrerapen orokorrak ditu proiektuen aktibazioan eta zaintza ereduaren hedapenean, baina alde nabarmenak daude lurraldeen artean ezarpen intentsitateari eta erritmoari dagokienez, eta horrek adierazten du lurraldeen arteko koordinazioa eta sendotzea indartu behar direla, inpaktua maximizatzeko.

Orekaren ardatzak garapen desberdina erakusten du, jarduera batzuk aurreratuta eta beste batzuk oraindik hasierako faseetan baitaude, eta helburu estrategikoari egiten dion ekarpena ere nabarmen aldatzen da proiektu eta lurraldeen arabera, nahiz eta positiboki nabarmentzen diren Zaintzen aldeko Euskal Ituna eta Gizarte Zerbitzuen II. Mapa. Azkenik, Ekitatearen ardatza da, aurrekontuaren betetze-maila handia izan arren, aurrerapen eraginkor txikiena izan duena; izan ere, haren proiektuen zati handi bat ez da hasi edo zati bat baino ez da hedatu, eta horrek mugatu egiten du, oraingoz, sistema aniztasunera egokitzeko eta diskriminazioari aurre egiteko helburuari egiten dion ekarpena.

Oinarri honen gainean, **aurrera egiten jarraitzeko ildoak orientatzen dituzten ikaskuntza** batzuk azaleratzen dira. Irakaspen argienetako bat da erakundeen eta Hirugarren Sektorearen arteko lankidetzaren egonkorra hobekuntza nabariak eragiten dituela: adostasunerako guneak, metodologia partekatua eta lidergo argia daudenean, sistemak koherentzia, eraginkortasuna eta erantzuteko gaitasuna irabazten ditu. Horrez gain, ikuspegi komunitarioak eta parte-hartzaileak gero eta garrantzitsuagoak dira, hurbiltasuna, erantzukidetasun soziala eta erabiltzaileen eta haien ingurunearen rol aktiboa indartzen baitute. Halaber, egiaztatu da funtzionatzen ari diren ekimenei jarraipena eta eskala ematea ahalbidetuko duten arau- eta antolamendu-esparruak finkatu behar direla, eta elkarrengarritasuna, datuaren kalitatea eta gaitasun teknologikoak indartu behar direla, ebidentzian oinarritutako kudeaketa baterantz aurrera egiteko.

Zaintzen arloan, azterketak agerian uzten du erantzukidetasunak eta zereginen bidezko birbanaketak erronka nagusiak izaten jarraitzen dutela, eta, horrek, zaintzaileentzako laguntzak indartzea, kontziliazioa hobetzea eta Zaintzen aldeko Herri Ituna bezalako estrategiak finkatzea eskatzen du. Era berean, lurralde-ekitatea ezinbesteko baldintza da lurralde osoan zerbitzuetarako sarbide homogeneoa bermatzeko. Azkenik, zaurgarritasun-, haur-, migrazio- edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen arreta emateak erakusten du sistemen arteko artikulazioa – soziala, sanitarioa, hezkuntzako, lanekoa eta bizitegikoa – funtsezkoa dela esku-hartze koherenteak, eraginkorrak eta jasangarriak ziurtatzeko.

Oro har, irakurketa integratu honek sendotze-prozesuan dagoen sistema bat erakusten du, parte-hartzaileagoak, komunitarioagoak eta ebidentzian oinarrituagoak diren ereduera bideratuta dagoena. Era berean, egiturak, gaitasun profesionalak, gobernantza eta baliabide egonkorak indartzeko beharra azpimarratzen du, lortutako aurrerapenak sendotzeko eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema eskuragarriago, bidezkoago eta koherenteago baterantz aurrera egiteko.